

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1932'ko Ilbel- tzaren 29'an.

Bildu diran euskaltzain jaunak abek dira : Azkue maipuru, Eguskitza, Intza, Olabide, Altube, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Oleaga. Otoitzez asi da.

1.º Altube jaunak, Iztegi beñiaren azalpena dala-ta, alako arau batzuek alde aurretik garbi jari nai lituzke. Batez ere, erderazko itzez zer egin bear dan, jakin nai luke. Abetatik batzuek, eri euskaldunak osoro darabizki : beste batzuek, jakintzak aukeraturik dauzka, ta emen eta an dabiltz.

Batzuen ta besteentzako irizpena berak azaltzen digu ta euskaltzain geienak irizpen ortara dijoaz.

Altubek dasa: nere irizpena onetsiko balitz, Iztegiaren aurre-aldean oar batzuek egitea on litzake.

Euskaltzain bakoitzari Altube'ren txostena bialiko zaio, ta gero erabakiko da.

2.º Iztegiaren lanetan Euskaltzaindiak jardun du.

3.º Euskaltzaindiak, Aita Jose Antonio Donosti bere urgazle izendatzen du, ongi jakiñak dira-ta, onen euskeraren aldezko lanak. Berdin Euskaltzaindiko urgazle izendatu degu apaiz gazte Juan Gorostiaga jauna. Sortaldeko mintzaketetan asko dakiena ta euskeraren alde lan asko egin lezakena.

4.º *Eusker*a gure aldirokoa osoro atze-dabil, ta beñiro ekin bear zaio. Iru zenbakietako gaia, oraingoz batean argitaratuko da.

5.º Diru-zaiak esan digu : urte-azken ontan zenbat diru dabilen gure kutxetan, ta zenbat sar ta eralgi dan urte-buruan.

6.º Juan Gorostiaga jauna Euskaltzaindiaren

Iztegi-lanetarako ta *Euskera* argitaratzeko, Ormaetxea jaunaren ordezt izendatzea on litzake. Bañan nondik eta zer atera liteken oñen saritzat ikusi arte, ez da ezer erabaki.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzañaldia.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 25'an.

Batzañaldi ontara euskaltzain jaun abek datoz : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez egin da.

1.º Ormaetxea jaunak eñi ta etxe batzuen izen-goitiak azaldu dizkigu ta *Euskera*'n argitaratzeko gorde dira.

2.º Azkue jaunak *modismos* pñla aundia irakuñi digu, ta uñengo batzañerako beste gai batzuek utzi ditugu.

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian 1932'ko Otsailaren 26'an.

Auñeko batzañaldian izendatzen diran jaunak agertzen dira, ta otoitzez asi da.

1.º Altube jaunaren idazki bat irakuñi da. Idazki au alde auñetik euskaltzaiñak irakuñi-ta zeukaten.

Altube jaunak deritza: 1.º eñiak darabizkien erdalitzak Iztegiñan ezañi litezkeñla a) baldin euskal-eñi egiñetan itz oiek zabaldurik badaude ta b) itz oien euskal-berdiñña askoz gutxiago erabiltzen bada. 2.º